

“Euskal Jaia”

M.^a Angeles ANGOITIA

Ikastola baten inguruan, edonun eta beti lez gaztetxo talde bat dago alkarrizketan. Alkarrizketa horrek, eztabaida bat dirudi, baina ez da. Ez, oso adiskide dira, urduri, baina alai ta zoli berbetan dihardue gure neska-mutil gaztetxoak.

—Irakurri dozue, Herriko-etxean dagoan oharra?

—Ez, zer jarten dau ba?

—Aurtengo herriko jaietan, zerbait egiteko gertu dagozan gaztetxoak gaur, arratsaldeko 6 retan izango dan batzarrera aurkeztu daitezala.

—Baina, hori nagusientzat izango da.

—Ez, guri deitzen deuskue bereziki oraingoan.

—Ez daigun aukera eder hau galdu.

—Ba! beti lez Soka-tira ta Mus txapelketa antolatzeke izango da. Eta gero, doinu eraginkor horrekin, maitemindurik aurkitzen diran neska-mutilentzat dantzea, gaberdirarte.

—Ez zaitez izan betiko txotxoloa! Dantzea ez da gazte bikoteentzat bakarrik. Guretzat ere bai. Gainera, jaiak antolatzerara deituak gara geu be, geure eritxiak han agertzeko. Behar bada, gure asmoak onartuak izango dira, eta aurtengo jaietan geu izango gara protagonista.

—Bai mutil! Zu beti amesetan.

—Ia, ia! Nahi dauana datorrela, ta nahi ez dauana, ez. Ni, banoa. Beste inor badator?

—Bai, ni eta Jon ere bai. Behar bada, Miren eta Aintzane ere etorriko dira. Oso adoretzuak eta asmo barri haundikoak dira horrelako gauzetarako.

—Ederto Kepa! orain bost gara. Taldeka aurkezteko dino Herriko-etxeko ohar horrek, eta gure asmoak gertauko doguz, hara joan baino lehen.

—Bai, lehenengo ta behin, izenen zerrenda bat egingo dogu, han, argi ta garbi aurkezteko.

- Jon Urigoiena.
- Kepa Iturrieta.
- Miren Atxarte.
- Aintzane Mendigoién.
- Koldo Soloeta.

—Arratsaldean 6 etan, Herriko-etxean danok. Gero arte!

—Arratsaldeon! Herritar gazte ta nagusi. Gaur hemen alkartzeko asmoa, guztiona bakarra da. «Txalaparta» he-

rrian, 1984 ko udabarriko Euskal jai hau ondo baino hobeto, ta guztion atsegingarri ospatzea.

Horregaitik ba, talde bakoitzaren eretxiak entzungo doguz, gero danon artean erabagia hartzeko. Aurtengo jaietan, gazteak izango dira nagusi, eta eurentzat da lehenengo hitza.

—Gu gazte talde bat gara, ta hona hemen gure egitea. Beste kirol, joko ta dantzaldi guztiakaz batera, kultur arloko ekitaldi bat nahi genduke. Geurea dana, ta ezagutzen ez doguna ezagutu ta bizitzeko aukera bat nahi dogu.

Euskal abesti ta euskaldunen jatorrizko bizikeren barri-bilatze txapelketa bat. Horretarako, gai batzuk aurreratu doguz, eta baimena emoten ba deuskuzue irakurri egingo doguz, ados zagozen edo ez erabagiteko.

—Aurrera, aurrera! Irakurri nasai!

- Bertsolaritza ta bertsoen bat.
- Esaera zaharrak.
- Etxe ta sendietako oitura ta siniskerak.
- Artzaintza ta nekazaritza bizitzako arlo batzuk.

Honeek dira bereziki aukeratu doguzan gaiak.

—Baina, ia, argitu eiguzue zelan izan daiteken txapelketa berezi hori.

—Propagandako txarteletan, adierazo herriko gazteei, izendaturiko gaien zerrendea. Hau da, gure jatorria, gure asaba zaharren ohitura ta bizikera osoa azaltzen dauan

lanen txapelketa bat izango dala, irabazleak, sari berezi batekin sarituak izanaz. Horrez gainera, saritutako lanak argitaratzea nahi genduke, aurrerantzean guk eta gure ondorengoak irakurri ahal izateko.

—Ederto! Horrela izango da. Jarriko dira oharrak, emongo dira sariak eta argitaratuko dira lanak. Bitartean zuek, gertau ta ikasi zeuen lanak, eta besteak jaialdiko beste arlo batzuei ekingo deusiee.

—Guk lan hori andereñoekin batera egingo dogu, eta aldi egokia datorrenean, eurekin batera aurkeztu ere.

—Ondo pentsau dozue gaztetxook. Asko poztuten gaituzue erabagi horrekin, jaietako arduradunok. Alkarrekin lan ederragoak egin daikezue, eta gero zuen poztasuna haundiagoa izango da.

—Kaixo andereño!

—Kaixo kuadrilla! Jakin leiteke nundik zabizen?

—Jaiak antolatzeko ospatu dan batzarrean egon gara, eta handik gatoz.

—Bai andereño! Jai horreetan guk ere parte hartu behar dogu.

—Ondo! Eta zer egin behar dozue ba?

—Egin behar dogu, andereño! Zuk ere bai.

—Bai? Eta zer egin behar dot bat?

—Guri lana egiten lagundu. Lan asko ta garrantzitsua egin behar dogu. Ia Koldo, azaldu zuk andereñoari jaieta-



rako dagoan asmoa, berak egitaraua egiten lagundu de-iskun.

—Ai ze poza! Lan garrantzitsu ta zoragarri hori egiteko prest zagozela jakitea. Begira! Taldeka hasiko gara lanean. Edo egokiago behar bada danok egingo dogu arlo guztietan lana.

Lehenengo bertsolaritzan hasiko gara lanean. Zuek, joan Mendigain baserri aretako amamarengana, eta eskatu bertso zahar batzuk abestu dagitsuezala. Zuok, Ibarluzera. Han aitita zahar bat dago, arlo honetan oso jakituna. Ni, bitartean bertsolaritza zer dan azaltzen saiatuko naz.

Euskalerrian idatziz baino aurrerago ahozko literatura izan dogu: BERTSOLARITZA.

Gure izakera ta odolean daroagun zer bat da hau.

Euskaldunak bertsoetan agertu izan dau bere bizitza osoa, neurri ta doinu egoki ta ugarietan.

Aho-belarriz jaso ta erabili izan diran bertsoz gainera bertso-papel ta liburuak be gogoangarriak izan dira gure artean. Eta nork ez ditu gogoan bertsolari txapelketak? Halako jendetza batzen da eurak txalotu ta berotzen han-hemen!

Oraintsu hasi-barriak doguz bertsolari-eskolak, ume ta gaztetxoan artean bertso-sena ta egarria sorrerazteko. Holan dala, eta nor ta zer garean agertzerakoan, ezin inundik inora alboratu bertsolaritza.

—Hona hemen andereño, guk bilatu doguna!

«Urretxindorra» bertsolariaren bertsoak dira eurok. Amamak ez dau jakin ze urtetakoak diran. Zuk ete dakizu?

—Ia, ia! Lehenengo entzun egin beharko dodaz, ez?

—Egia! Nik, neureak hemen dozuez.

- «Agur Euskalerrria ez dakit noiz arte,
gure Jaungoiko onak gura dauan arte.
Urrin eon arren Zugaz, ezin ahaztu neinke
beti zaitudalako bihotzetik maite. (bir).
- Zelan ahaztuko naiz ni Aberri laztanaz,
benetan maite dodan bihotz danaz.
Maitasun eta indarrez, nahigabez ta penaz
eusker a galtzen bada ni be galdua naz. (bir).
- Agur nere bihotzeko aita eta ama,
jatorrizko hizkuntza nik oso dot maita.
Hemen naukazue ni, hitz bat egin nahi ta
baina gaur ezin neinke urrin bizi naiz ta. (bir).
- Amerika aldian egin dot gogaitu,
neure bihotzik hemen ezin dot alaitu.
Txoritxuak bezela, bego bi banitu
laister nintekela ni Euskalerriratu. (bir).

Ez, ez dakit nik ere ze urtetako bertsoak diran eurok. Baina ez dau ardura, irakurle askok eta askok jakingo dabez behar bada, eta hemen irakurteak ta barriro gogorazteak poztu egingo dabez.


—Eta zuek zer bilatu dozue ba?

—Guk ere zerbait bilatu dogu. Hobeto esanda hainbat. Eta orain danon artean egokienak aukeratuko doguz. Ez dau jakin, ez norena dan, ez noizkoa dan. Dana dala, hartu egin doguz. Hona hemen gehien atsegin izan jakuzanak.

● **Zer naiz ni? Nor naiz ni?**

ZER NAIZ NI? NOR NAIZ NI?
AITA TA AMA, ESAN GARBI.
EUSKALDUN FEDEDUN
GUK BIOK SORTU ZINDUGUN.

- Sarri entzun dot: «Euskerabako euskalduna da traidore»,
Orain dinoe: «Gure euskera bakarrik dala folklore».
Eskumakoak: «Euskera barik bizi ei dira dotore»;
Ezkerrekoak: «Euskerak non dau gu biztuteko adore?».
- Ikastoletan euskal umeok ikasten gabiltz Euskera, eta hainbeste euskerazko orri etorten jakuz etxera.
Orri-arteana, zenbat hasarre, gizonak ume-antzerak;
batean atxe, bestean matxe... gu gizonaguak gera!
- Ume guztiok, ondo entzun gaur zer diñotsuen lagunak:



Maite daiguzan biotz-biotzez
gure guraso kutunak.
Maite euskera, maite Jainkoa.
euskal odola dogunak,
orain da beti izan gaitzean:
gu euskaldun fededunak!

—Amaitu dogu lehenengo arloa, eta bigarrenera abiatuko gara. Hau atsegingarria da, eta errez egingo dogu. Heldu gaitzean Etxe-zuri baserrira, han emakume talde batek karta-jokoan dihardue, ta nahi dogun beste ESAE-RA ZAHAR kontauko deuskuez. Egin daigun guztion artean zerrenda bat.

- Mending jaioak mendira nahi.
- Jaio ezkerro, heriotza zor.
- Egia esan eta adiskidea galdu.
- Euri txikiak baretzen ditu haize haundiak.
- Ezkurrik ez dan urtean, negua biguna.
- Inork ez dau ahal dauan baino gehiago zor.
- Gizon alper eta mozkorra, bere eta besteen hondagarri.
- Gehiago nahi ez dauanak badau nahiko.
- Abestiak kartzelarik gogorrenak poztuten.
- Ez dago ixilean gelditzen dan esker onik.
- Arratseko txarto egina, goizean ageri da.
- Umeak jan ez daiana, umezainak.

- Ahoa bero, gibelondoa hotz.
- Jaia ona bezperatik.
- Alperra beti gazte.
- Hartuak emona zor.
- Ibiltari gabea, logura goizean.
- Gose-urte, osasun urte.
- Lehengo zaharren esaerak, guztiak jazoerak.
- Adiskideak zahar, kontuak barri.
- Daukanari galduten jako.
- Diruak mendiak zelai bihurtzen ditu.
- Emotea on, hartzea hoba.
- Emoile bahaz, adiskide faltan ez haz.
- Emoten dauanak ordaina ikusi nahi.
- Berba esana ta ur ixuria ezin batu.
- Emoilerik ederrena ordezkorik eskatzen ez dauana.
- Ez izan eta bai uste.
- Ez dan bedarra berez igartu.
- Sobran baino hoba nahiko.
- Zuhurrak luzaro pentsatzen eta laister obratzen.
- Burdinak zaharrago ta kirrinka gehiago.
- Ixilaren gauza guztiak dira sekreto.

- Einak ez dau legerik.
- Eraginago ta zikinago.
- Beti dago arantzea pobreen oinetan.
- Barri gaiztoa bera zaldi.
- Azarientzat oilokia, koldarrentzat txakurkia.
- Burla minena egia dinona.
- Zuhaitz onak keriza ona.
- Zeu handi ta neu handi, nork guri afaria jarri?
- Elaiak goizean txio-txioka egiten badabe eguraldi ona.
- Zelan irabazi, olan irazi.
- Ozpin gaiztoena, ezitik egina.
- Ez izan zentzun bako, zaldi ta mandoen antzeko.
- Gehiago egiten dau nahi dauanak, ahal dauanak baino.
- Izena haundi, izana txiki.
- Barre askok, negar danok.
- Jauregiko zorra baino hospitaleko hartzea hoba.
- Edurra, zuri dalarik baltza da.
- Goseak ez dau ezagutzen lotsarik.
- Umearen hirugarren hankea, garrasia.
- Arratiako zekorra, txikerra baina gogorra.



- Neu nagusi edo muturrak hausi.

—Gertu zagoze hirugarren arloan ekiteko? Hemen adore ta denpora gehiago beharko dogu, baina nasai. Zoragarria izango da lan eta ekitaldi hau. Orain ikusiko dogu gure gurasoen gurasoak zelan bizi ziran. Zelako siniskerak eukiezan.

—Ai, zuek! Zer deritxazue magnetofioia eroatea?

—Oso ondo! Horrela, euren hitzen oroigarria ere eukiko dogu. Nok hartu leike hau?

—Neuk?

—Ederto Miren! Zuk hartu magnetofioia, eta zuk Aintzane, hartu daikezu argazkiak aterateko makinea?

—Bai andereño! Pozik hartuko dot, niretzat jokorik atsegingarrietarikoa lez da lan hori.

—Ia mutilak! Zuek zer dinozue?

—Barri-bila joateko amesetan gagozala! Horrelako ekintza interesgarririk ez dogu sekula, ez ikusi ez burutu. Lehen bait lehen joango gara, ahal dogunik eta barri gehien bilatzeko.

—Norantza joango gara andereño?

—Arlo honetan ezin dogu alderdi bat bakarrik izendatu. Arlo oso zabala da eta inguru guztiak arakatu beharko doguz.

—Ederto andereño! Taldea joango gara ez? Edo ta zergaitik ez binaka? Miren eta Aintzane alkarrekin joango

dira. Kepa eta Koldo beste aldetik. Andereño barriz, Jonekin joango da beste alderantza. Ahal dogunik eta zehatzen batuko doguz barriak eta albisteak.

—Aurrera! Barriro danok ikastolan alkartu arte!

—Kaixo lagunok! Egin dozue nahiko barriketa?

—Honeek dira barrien-barri! Honelako albiste ederrik sekula ez da entzun. Banan-banan danak azalduko doguz, guk dogun poztasuna beste askok ere euki daien:

A U Z O - L A N

Etxe ta auzokoen artean hartu-emon bero ta bereziak izaten ebezan antxinako gizaldietan.

Baserri-lan gogorrenak egiteko epea heltzen zanean, han batu ta antolatzen ziran auzoko sendi edo «Etxeko» guztiak. Maiatzean, arto-ereitea bazan, gerotxoago bera jorrazteko. Udabarrian patatea ereitean, udan jorratu ta batzeko. Udazkenean gari ereiteak, udan, gari-ebate, gari-jote ta gari-garbitzen lan gogorrak. Txarri-hiltea bazan, han egozan auzoko guztiak, lehenengo lanak egin eta gero alkarrekin «Txarri-boda» alai ta jatorra ospatzeko.

Baserri-lanak amaitu edo burutzen baziran, auzo-lan berezi bat antolatzeko prest agertzen zan nortait. Urrineko baserriren batera bide barriren bat egin. Ura eroan. Herriko-etxe edo baso-elizaren baten teilatua konpondu, e. a. Horrelako lan asko ta asko egiten ziran «Auzolan» deritxon lanetan.



S U A - B E H E S U A

Sua, bizi-iturri da. «Su bako etxea, gorputz odol bagea».

Hainbat gizalditan euskaldunen etxe bakotxean, sua buru dala alkartzen zan sendia. Gehien baten, gelearn erdi-erdian egiten zan sua. Beronen inguruan, «sutondogan», egiteko beste bizimodu osoa. Sua jatorri dala, sutondoko bizitzatik hartuta erabili da Euskalerriko herri askotan, etxeko gela nagusiaren edo bereziaren izena: «Suate» edo «sukalde».

Artzain txabolak ere ez eukien aparteko zerik; baina txabolearen erdian ez zan sekula su ederrik faltako.

Etxe gehienetan, erdian ez ba zan ere, ba egozan horma baztarretan euren sua eukienak. Suaren txingar eta ikatz guztiak egoki batzeko, ondo antolatutako «suburdin» batzuk ipini eta goitik behera suaren erdi-erdian laratsua eskegita, bere lana egiteko beti prest. Atzeko aldean, irudiz ondo apaindutako burdin edo arlosa dotoreak eukiezan: Suosteko harri».

Euskaldun askok, gure arbasoak, suari debozino handia eutsien, mesedeak eskatzeko. Esate baterako, umeei haginak urten egiezan.

Beste batzuetan, su horretatik hartutako ilentian sartzen zan iluntzeko «Ave Mariak» jota gero, iturritik ekartzen zan uretan, txar guztietatik garbi geratu eiten. Baita ilenti berbera sartzen zan kafea egiten zan lapikoan.

Gabaz, etxeko danak oheratzean, sua batu ta hautsez estaltzen zan, oheratu orduko, guztiak batera, esaldi honeek esanaz:

«Sua batzean, sua batzean,
infernuko guztiak
gure etxetik urten,
mila aingeru sartzean».

Hau esan ondoren, «Gure Aita» esan eta ohera.

Beste leku batzuetan, sua ondo batuta gero, beronen gehiago, (esate baterako Arratian) abereen hilketak ez ziran edozein egun edo alditan egiten. Horretarako, ohitura ta egun berezi batzuk eukiezan.

ABEREEN HILKETAK

Euskalerrian, bailera batzuetan beste batzuetan baino gehiago, (esate baterako Arratian) abereen hilketak ez ziran edozein egun edo alditan egiten. Horretarako, ohitura ta egun berezi batzuk eukiezan.

—Irailean, ardi zahar bat hilten zan, etxean ez ba egonan, artzainei erositako, ardi hori urriko egunetan jateko.

—Azaroan, auzoko bi edo hiru sendi alkartuta, behi bat hilten eben, urte osorako okelea eukiteko. Zatirik ederrenak «gatzonaskatan» gordeten ebezan, luzaroago irauteko. Horregaitik, gaur be haragitegietan erositako haragiari «haragi barri» deitzen deutsie batzuk.

Neguan, gehien baten abendutik otsailera, txarri-hilketak izaten ziran. Etxe batzuetan bi edo hiru txarri hilten ziran gainera. Hilketak guztietatik ospetsuena izaten zan hau. «Ilbera» izan behar zan txarria hilteko. Epe honi «Asegune» deitzen jakon. Arazo honek garrantzi ta siniskera haundia eukan, gure aurretikoen artean. Abereen odol ta landareen guna edo ura gelditu egiten zirala uste



eben. Hau dala ta, txarria ilberatik kanpo hiltzen bazan, bere odola bits biurtzen zala sinistuten eben.

Goizaldean, eguna argitzean hil behar ei zan. Hil aurretik, samur eta maitekiro hitz eginaz baketu ta gero. Ondo odolustu ondoren, galtzu edo ide moltzo baten gainean erre, ta teila ertz batez ondo igurtzi ta garbitu egiten zan.

Guzti honen ondoren, gehien baten jaialdi bat ospatzen zan. Hau da «Txarri-boda».

—Pazkua, Isidro deuna edo Jose deuna udabarriko jaiak gogoan izanik, bezperetan, artxo edo ahumeren bat hiltzen zan, jai horreek dizdiratsu ospatzeko.

—Egaztien hilketak ostera, edozein jai ospetsu edo garrantzitsuetan izaten ziran. Hau da, komeni eta ahal izaten zan guztietan.

OGIAREN INGURUKO SINISKERAK

Ogiak, janarietan beharrezkoena dala ta, siniskera ta ohitura bereziak ditu beragan. Batez be, egikera on eta gaiztoekin hartu-emonean.

Ogia ezin zan, ez jaurti ez alperrik galdu. Arrazoiren bategaitik jaurti beharra ba egoan, lehenengo, jaurti behar zan txatalari mun emon, «zeruko aingeruak jan dagiela» esan eta jaurti beharko zan.

Mahaian jan behar zan ogia ebagiteko, ebagi aurretik, aiztoarekin kurutza bat egin, mun emon eta ebagiko zan.

Ebagikeran edo jatorduan ogi-zatiren bat jausten bazan, jaso ta mun emon beharko jakon. Beste lurralde batzuetan, mun emon beharrean, etxeko be-sutan jarten zan

une batez. Hau, jasuikeran hartu eikezan zikinkerietatik garbitzeko izaten zan.

Eskekoren bat etorten bazan atera, eta ogia emoten bajakon, emon aurretik mun emoten jakon. Bardin eskekoak berak be hartu aurretik. Eskekoaren pratikerako ogi-zatiren bat emotea egoki izaten zan, berbaz ikasi ezinik egoan umeren bati, ikasi eian.

Ogia ez zan sekula ere goikoez-bera jarriko. Inoiz egiten bazan Ama Birjina negarrez egoala esan eta sinisten zan. Beste batzuk, purgatorioko arimak atsekabez egozala inoen.

Gabon-gaueko ogia, bedeinkatua zan. «salutadurea» deitzen jakon. Gabon gauez, afaltzeko orduan, etxeko nagusia mahaia bedeinkatu ta ogia zatitzen hasten zan. Lehenengo ebagiten eban zatia, jan barik gorde egiten zan. Ogi-zati hau, ez zan urte osoan umeltzen. Aparteko grazi bat eukan. Urtearen barruan txakur amorraturen bat baegoan, ogi honetatik emoten jakon, baretu ta osatzeko. Bai ta erreka ta itsasoko urak eta haize boladak baretzeko, honen preminarik baegoan.

Etxean hil-barriren bat egoanean, Gabon gabaz gordetako ogia elizaza eroaten zan «olata» eskeintza lez.

ARGIA

Argi-ontzitan, hainbat, ziran antxinako urteetan. Dandanak, orain daukagun argi-indarraren sorreraz baztatuak izan dira.

Lehenengoenetariko «kurtzulua» zan. Hau orioagaz erabilten zan. Hurrengo, «kinkea» petrolioagaz, hau kar-

buruagaitik aldatu arte. Guzti honeek argi-mutil izeneko tresnetan eutsi jarriak izaten ziran.

Lastati, korta edo etxetik kanpora ibilterakoan, kristalezko farolak, edo galtzuzko susiak erabiltzen ziran. Galtzuzko susia, berezia izaten zan. Galtzuzko esku-meta ondo egindako bat hartu, sua emon eta noizean-behinka esku-aidean erabiltzen zan, lar arin erre ez eiten, edo ta amatau ez eiten.

TINIKUA


Baseri baten, etxeko alaba zaharrena lexibea egiten dabilela ikusi dogu. Jakin nahi dozue zelan?

—Bai, bai! Hori jakitekoa izango da-ta.

Egurrezko tiniku bat, burdinezko estuntzaz sendotua; tiniku honetan sartzen izan ditu erropa zuri guztiak, eskuz jaboia emonaz, eta ehunezko oihal bat gainean ezarriaz. Honen gainean, surteko hautsa, bere ikatz ta guzti zabaltzen izan dau, erinotz-orri batzuekin nahastuta. Oihal horrekin dana ondo estaldu ondoren, gainetik ur irakina jaurtiten izan deutso, erropea egosi daiten. Tinikuaren azpiko zulotik urteten dauan ura, barreinu baten batzen izan dau; ondoren ur honegaz, hankak garbitu ditu. Tinikuko erropak ondo egosita gero, ondoan dagoan erreka baten jo egin ditu, azken garbiketa eginaz.

ETXE - ZAINZAILA DIRAN EZAUGARRIAK

Etxea bera da arerio eta eragozpen askoren aurrean babesleku. Etxe edo babesleku honetan lehenengo tokia



dauan ezaugarria SUA da. Baina etxea bera ere eragozpen edo erasoak izateko arriskuan izaten da sarritan. Jose Miguel Barandiaranek dinoan lez, arrisku batzuk berezkoak eta beste batzuk aidekoak.

Berezkoa zan arriskua, gizonak neurtu edo geldierazo eikean, baina aideko edo askeak, ezin zituan gizonak bere ahalmenez bakarrik zaindu, neurtu edo menperatu. Horregaitik, eskariak edo keinadurak erabilten ebezan. Gehienetan, erlijio arloko ekintzak izaten ziran. Beste batzuetan sorginkeriak.

Ezaugarri honeek leku bereziak eukiezan etxeetan. Teilatua bata, ta sarrerako atea bestea.

Arerioen artean ugarienak ta bildurgarrienak hodeia ta inistua edo oneztarria dira. Arrisku edo arerio ahaltsu honek eraso ta kalte asko egin ditu etxeetan. Horregaitik, gizonen ahalmen guztietatik kanpo dagoan indar bat dago-kio beragan.

Hodei honi ortzi ere deitzen jako. Antxinako sinis-ke-
retan, zerutiko indar baten personifikazioa ei da. Oinez-
tua, hodeiak bialtzen dauan argi sendo bat dala ere sinis-
ten da. Etxea arrisku honetatik askatu edo zaintzeko, sa-
r-rerako atean, bere ahoa gorantza begira dauala, aizkora
bat jarten zan. Beste eskualde batzutan, makila bat tente,
bere goi aldean igitai bat lotuta.

Gehien erabilten zan ezaugarri edo bidekoa «arbola»
edo landarak ziran. Ez bakarrik arriskuetatik zaintzeko,
bai ta, arrisku honek dirala ta, gizonak hartu leikezan osa-
sun geisoetatik askatzeko ere.

Arazo honetan egunak ere badau nahiko zer-ikusi. Garrantzitsuena edo famauena, Jon deunaren eguna da. Udearen hasiera berau. Aldi berezia ta gogoan izatekoa arazo honeetarako.

Ekainean, Jon deunaren egunez, goizean-goizetik inontzagaz batera leizar adar bat ekarten zan etxera. Etxeko sarrerako atean ipinten zan garai aretako lora ta gariz apainduta. Bere enbor inguruan, leizarrez edo elorritz kurtzearen irudia emonaz. Hau, urte osoan bertan eukiten zan etxea eraso ta gaitz askotatik zaintzeko eta bide batez, bedeinkatzeko.

Beste leku batzuetan, ez zan izaten leizarra ta bai hari-tza, baina sekula be ez pagoa.

ERINOTZA

Beste alde batetik, «Erramu» egunez bedeinkatu ta etxe guztietan gordeten zan. Hau urtearen barruan, gauza askotarako erabilten zan.

● Hodeia egiten baeban, erinotz honen adar batzuk erreten ziran etxeko suan.

● Etxean gaisoren bat baegoan, erinotz adar bat erre-tan zan bere lo-gelan geiso horretatik lehen bait lehen osatu eiten, bere inguruan otoitz eginaz.

● Abereak egozan korta edo ikuiluan ere, ipintzen ziran adar batzuk, abere horreek hodeien gaiztakerietatik zaintzeko.

● Lo-geletan egoten ziran ur-bedeinkatu ontzietan ere sartzen ziran adar batzuk.

• Etxe-gileak egiten diharduen etxeari teilatua amaitzen deusienean, bere gailurrean, erinotz meta bat jarten deusie, lormen hori ospatu ta goratzeko.

ELORRIA

Maiatzean, «Santikurutz» egunez, elorritz egindako kurutzak bedeinkatzen ziran. Honelako bana solo eta ortu bakoitzean ipintzen zan gero. Ezaugarri honekin, hartutako frutuak bedeinkatu ta barriak zaintzeko asmoa izten eben.

Elorri-zuria deritxona ere, teilatuetan, etxe-ertzetan edo leihoetan jarten zan, oinez-tuen gatx-indarretik zaintzeko. Adar honeek, Jon deunaren egunez ebagiak izan behar eben. Egunsentian, eta eguzkiak urten baino lehen jarri.

UR - BEDEINKATUA

Zapatu Santu gabeko mezatan bedeinkatzen zan ura, sendi bakoitzak bere etxera eroan eta urte guztirako gordetan eban. Ur hau, ur-bedeinkatu ontzietan, oheko kutxadar ondoan jarten zan, lo-gela guztietan, erinotz adar bat sartuta.

Hodeia egiten eban egunetan, ur-bedeinkatuagaz etxe guztia txipristinduten zan, otoitz batzuk esanaz.

Beste batzuetan, garautegiak eta kortak ere txipristinduten ziran, garaua ereiteko bazan batez ere.

Gaisoren bat, edo hildakoren bat baegoan etxean, ur-bedeinkatu ontzi bat, erinotz adar bat barruan zala jarten zan gelan.

Etxe barrira inor ez zan sartuko bizitzera, aurretiaz ur-bedeinkatuaz bedeinkatu barik.


Amaitu dogu, arlo neketsu baina zoragarri hau. Azkenez, geratzen jakun hondakina aztertzeraz goaz. ARTZAINZA TA NEKAZARITZA. Arlo honetan ez gara sakon sartuko, zabala ta sakona izanik, ondo egiteko ez dauka-gulako ez denporarik ez aukera ederrik. Dana-dala, geure ahalegintxoaz egingo dogu.

ARTZAINZA

Artzaina ibiltaria zan. Bere abereak, hara-hona erabiliaz zaindu ta hazten ebazan. Neguan, etxe-inguruetan ibili ta larratu ondoren, udabarrian euren bizitza mendi-tontorretan igaroten eben. Euren etxeak txabolak ziran. Bai, txabolak. Lau harrizko horma, ta teilatuak gehien baten, zuhaitz adarrez estaldutakoak. Txabola honeek ez eukien ez kebiderik ez leihorik; ez gelarik, ez irolarik. Sarritan zutunik ere ezin jarri, bere neurria urria zalako, bai gorantza ta bai beherantza. Bertako tresnak ere oso urriak eta apalak ziran: lastamarragazko ohe bat, barrainu ta maskilu bana, eta gaztaia egiteko beste tramankulu batzuk.

Artzainen lan eta bizibidea bakarra ardiak zaintzea zan. Zenbat eta ardi gehiago, ondasun gehiago. «Aberatsago». Hau da, abere askoren jabe.

Artzaintzaren lehenengo denporetan, lurrak komuna-



JESSE-85

lak ziran, dana danena. Apurka-apurka, lurrak eta onda-sunak banandu egin ziran. Banandu edo jabetu.

Gizona, ardiak zainduaz batera, lurra lantzen hasi zan. Hau dala ta euren neguko txabola edo bizilekua, urte guztiko bizileku bihurtzen zan. Horrela, geroago ta egokituagoak egiteko preminea. Lurrak landuago ta eurak aberatsago. Gainera, igali-zuhaitzak ere landatu ta igali askoren jabe egin ziran.

Artzainen ibiltari bizitzea, egokitua izango da. Horretarako, begira txabolak zelan bihurtzen diran etxe, ta lur komunalak, etxaguntza.

Txabola zan lurrean, gizon talde batek lanean dihardu. Egiten diharduen lana zer eta zertarako dan jakin nahirik dago beste talde bat aldamenen.

—Kaixo! Esango deuskuzue zer eta zertarako dan egiten zagozena?

—Bai, horixe, pozik esan be! Hemen, txabolatxo honetan bizi izan gara orain arte. Lur eta ondasun guztiak danonak izan dira; orain bakoitzak geure lurraldetxoaren jabe egin gura dogu. Eta bakoitzarentzat zer eta zenbat izango dan neurtu, erabagi ta izendatzen gabiz. Jakin dagozun, honelaxe neurtzen da: txabolan sua egoan tokian hasita neurtzen da bakoitzarentzat lurraldea, txabola bera dagoan tokian etxea jasoaz. Sutegi-erdian taketa sartu, berrehun ta berrogetamar metroko kordel bat lotu, eta soka horrek emoten dauan neurrian biribil bat egiten da eta hor barruan sartzan dan lur-zatia izaten da bakoitzarentzat. Baina hau dirua daukanak bakarrik lortu lei, lurralde honeek ordaindu egin behar diralako.

Era honetara lurrak bananduak zirala, argi ta garbi ikusten da oraindik. Esate baterako, Urkiolan dago base-
rri bat era honetara. Etxea erdian dauala, bere etxaguntza
guztia inguruan biribil-biribilean.

Honela hasi ziran mendiko lurrak luberritzen. Euren
inguruak mugarriz inguratu ta jabetasuna adierazoaz.

Txabolak, etxe bihurtu ziran. Ibiltari (trashumante)
ziran abereak egonkor (estabulada). Hazi, landara ta zu-
haitzez bete ziran etxe-inguruak. Horrela sortu zan base-
rria, ta baserritarra.

Ordutik aurrera, etxeko-lurrak edo baserria ta herri-
ko-lurrak edo lur komunalak, danenak ziranak egozan. Gi-
zona ez zan txabolan lez bakarrik bizi. Etxean, familian,
auzoan, herrian..., bizi hazi ta hazi zan. Alkarrekin bizi-
ten ikasi ta hazi behar. Eta denporea joan, denporea eto-
rri, arau ta legeak behar ziran. Horretarako idatzi ziran
FORUAK. Hainbat urtetan izan ziran gure aurretikoak
lege honeen jarraitzaile, baita zuzen eta zintzo bete ere,
azken baten 1877 urtean guretarrak ez ziranak kendu arte.

Honeek izan dira gaztetxo honeen taldeak bilatu dituen
albisteak. Pozik bilatu ta kontau dabezan ezkerero, askok
eta askok poz-pozik irakurri ta gogoratu dagiezala nahi
neuke.

A, a, a.

Amaitu da Euskal-jaia,
bertso kontu ta ohitura
aupa jo ta aurrera!

A, a, a.

Aupa jo ta aurrera!

E, e, e.
Entzule ta irakurle.
Euskera maite-maite,
ta jarraitu jo ta ke.
E, e, e.
Ta jarraitu jo ta ke!

I, i, i.
Ijiji ta irrintzi.
Euskaldunen garrazi,
sekula ere ez itxi.
I, i, i.
Sekula ere ez itxi.

O, o, o.
Ohitura eta bertso.
Ez izan ez kokolo,
bestela ez jan ez lo.
O, o, o.
Bestela ez jan ez lo.

U, u, u.
Tiniku ta kurtzulu.
Ohitura ederrik dogu,
siniskerak jarraitu.
U, u, u.
Siniskerak jarraitu.